

## ZER DA EUSKARALDIA?

Euskararen erabilera aktibatze mugimendu soziala da, Euskal Herri osoan eragiteko sortu dena. 2025eko Euskaraldiaren 4. edizioa izango da.

Mugimenduak herritarren hizkuntza-praktikak aktibatu eta euskararen erabilera handitu nahi du, eguneroko harremanetan euskara lehenetsiz. Horretarako, 11 eguneko ariketa sozial masibo bateratu bat garatuko da, **maiatzaren 15etik 25era**.



## NORK SUSTATZEN DU EUSKARALDIA?

Ariketa honen sustatzaileak, Taupa Euskaltzaleen Mugimendua, euskalgintzako gizarte eragile desberdinak eta erakunde publikoak dira.

Merkataritza eta ostalaritza sektoreek hizkuntza ohituretan daukaten eragina kontuan izanik, Bilboko Udalak ariketa honen garapenean lagundu nahi du Biribilko Egitasmoa baliatuz.

## ZEINTZUK DIRA EUSKARALDIAN PARTE HARTZEKO BETE BEHAR DITUZUN BALDINTZAK?

- **Bi baldintza** bete behar dituzu: 16 urte ala gehiago izatea eta euskara ulertzea.
- **Bi rol** eskaintzen dira eta horietako bat aukeratu behar duzu:



### AHOBIZI

Euskaraz ulertzen duten guztiekin euskaraz egingo duzu uneoro. Kideek euskaraz ulertzen ote duten ez dakizunean lehen hitzak, beti, euskaraz egingo dituzu; euskaraz ulertzen badute, euskaraz jarraituko duzu.



### BELARRIPREST

Une bakoitzean erabakiko duzu euskaraz noiz eta norekin hitz egin. Hala ere, ahaleginduko zara euskaraz dakitenek zuri beti euskaraz egin diezazuten, eta modu esplizituan eskatuko diezu.

- **Rol bakoitzak bere txapa du.** Ariketak irauten duen 11 egunetan, soinean eraman behar duzu aukeratu duzun rolari dagokion txapa.
- Ariketan sozial honetan **maila pertsonalean edo maila kolektiboan** (establezimendu modura) parte hartu ahal izango da.



## ZER EGIN BEHAR DUZU ESTABLEZIMENDU GISA PARTE HARTZEKO?

Zure entitateak Euskaraldian parte hartzea erabakitzen badu, <https://euskaraldia.eus/entitateak/> webguneko "Hartu parte!" atalean klikatu eta irekiko den formularioa bete behar duzu. Hori egitean, hiru konpromiso hauek onartuko dituzue:

1. Belarriprest eta Ahobizi rolen berri eman eta zure entitateko kideak rol horiek hartzera gonbidatu.
2. Euskararen erabilera sustatzeko prestakuntza eta baliabideak kideen eskura jarri. Horiek [www.euskaraldia.eus](http://www.euskaraldia.eus) webguneko intranetean topatuko dituzue.
3. Ariketan parte hartzen ari zaretela ikusgarri egin: espazioak apaindu, txapak banatu, eta barne zein kanpo komunikazioetan Euskaraldia zabaldu.

Informazio gehiagorako, ondorengo kanalak erabil ditzakezu:

**Posta elektronikoa**  
bilbo@euskaraldia.eus

**Telefonia**  
688754499 (Alazne Astorga)  
688758933 (Uxue Sagarmínaga)

**Eskerrik asko.**



## ¿QUÉ ES EUSKARALDIA?

Es un movimiento social para activar el uso del euskera. Se ha diseñado para incidir en el conjunto de Euskal Herria y en 2025 se celebrará su 4ª edición.

Este movimiento pretende cambiar los hábitos lingüísticos de las personas con el fin de aumentar el uso del euskera en las relaciones cotidianas. Para ello, se va a desarrollar un ejercicio social masivo durante 11 días, **del 15 al 25 del próximo mes de mayo**.



## ¿QUIÉNES PROMUEVEN EUSKARALDIA?

Se trata de un ejercicio promovido por Taupa Euskaltzaleen Topagunea, los agentes sociales que trabajan por el fomento del euskera y distintas entidades públicas.

Considerando el impacto que los sectores comercial y hostelero tienen sobre los hábitos lingüísticos de la población, el Ayuntamiento de Bilbao va a colaborar en su impulso a través del programa Biribilko.

## ¿QUÉ CONDICIONES DEBES CUMPLIR PARA PODER PARTICIPAR EN EUSKARALDIA?

- Debes cumplir **dos condiciones**: tener 16 o más años y entender euskera.
- Se ofrecen **dos roles** y debes elegir uno de ellos:



### AHOBIZI

Hablarás siempre en euskera con todas las personas que entiendan euskera. Cuando no sepas si la otra persona entiende euskera, las primeras palabras siempre las dirigirás en euskera; si la otra persona entiende euskera, seguirás hablando euskera.



### BELARRIPREST

En cada momento decidirás cuándo y con quién hablar euskera. Tratarás de que quienes sepan euskera siempre se dirijan a ti en este idioma, y se lo solicitarás de modo explícito.

- **Cada rol tiene una chapa específica**. Durante los 11 días que dura el ejercicio debes llevar puesta la chapa correspondiente al rol elegido.
- Se podrá participar en este ejercicio social **a nivel personal o a nivel colectivo** (como establecimiento).

## ¿QUÉ TIENE QUE HACER TU ESTABLECIMIENTO PARA PARTICIPAR?

Si tu entidad decide participar en Euskaraldia, simplemente haz clic en el apartado "Participa" de <https://euskaraldia.eus/es/entitateak/> y rellena el formulario que se abre. Al hacerlo, asumiréis estos tres compromisos:

1. Informar sobre los roles Belarriprest y Ahobizi e invitar a todo el personal de la entidad a adoptar dichos roles.
2. Poner a disposición del personal formación y recursos para fomentar el uso del euskera. Estos los encontraréis en la intranet de la página web <https://euskaraldia.eus/es/>.
3. Hacer visible vuestra participación en el ejercicio: decorar los espacios, repartir chapas y difundir Euskaraldia en las comunicaciones internas y externas.

Para más información, puedes utilizar los siguientes canales:

**Correo electrónico**  
bilbo@euskaldia.eus

**Teléfono**  
688754499 (Alazne Astorga)  
688758933 (Uxue Sagarminaga)

**Eskerrik asko.**

